

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
DATA / FECHA: 2019/03/06
HASIERA / INICIO: 20:50
AMAIERA / FINAL: 21:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA / ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan ́lvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa lehen deialdian egiteko. Zulueta jauna eta Ruiz andrea gai-zerrendaren bigarren puntuari iritsi ziren. Ekitaldiaren fede eman zuten Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gai-zerrendaren arabera, eta akordio-proposamen hauek egin ziren:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2019ko otsailaren 20ko saioko akta onartzea.

2.- Abiña Andoni Deuna auzoaren urbanizazioa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak Udal Arkitekto Aholkulariak Abiña Andoni Deuna auzoaren urbanizazioaren gainean idatzitako Memoria zenbatetsiaren berri jaso zuen, zeina Foru Aldundiari aurkeztu zaion jarduketarako laguntza ekonomikoa eskuratzeko. Azkenean, obraren kostua handia denez, lehen faserako bakarrik eskatu da dirulaguntza.

Era berean, jakinarazi zen hainbat auzotarrek bestelako urbanizazio-proposamena aurkeztu zutela krokis batean, baina inolako aurrekonturik gabe.

Azkenik, Tokiko Gobernu Batzordeak ezagutu zuen zein iritzi duen San Antonioko enklabea ezabatu izanaren ondorioz abiatutako auzi judizialean Udal hau babesten duen abokatuak: erabat zuhurtziagabea da inbertsio handiak egitea eremu horretan, nahiz eta dagoeneko udal-barrutian sartuta egon, oraindik auzitan dagoelako. Inbertsioak egingo balira, eta azkenean eremua Sukarrieta udalerrira itzuliko balitz, zenbateko horiek ez liriteke berreskuratuko.

Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, enklabe ohian egin beharreko inbertsio-obrak etetea (kontserbazio eta mantentze arrunterakoez harago), harik eta behin betiko ebatzi arte izapidetzen ari diren administrazioarekiko auzi-errekurtsoak.

3.- San Kristobaleko biribilgunea.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiak aurreikusita duela, besteak beste, San Kristobaleko biribilgunea egitea, aurretik; horretarako, duela hamarkada bat eraturiko eraikuntza-proiektua eguneratzen ari da.

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 20 de febrero de 2019.

2.º.- Urbanización del barrio de Abiña Andoni Deuna.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la Memoria valorada redactada por el Arquitecto Asesor Municipal respecto de la urbanización del barrio Abiña Andoni Deuna, que se ha presentado a la Diputación Foral para la obtención de ayuda económica para su ejecución. Finalmente, dado su elevado importe, se ha solicitado subvención únicamente para la primera fase de las obras.

También se informó de que algunos vecinos habían presentado un croquis con otra propuesta de urbanización, a la que no se acompaña ningún presupuesto.

Por último, se trasladó a la Junta de Gobierno Local la opinión al respecto del letrado que está defendiendo a esta Corporación en los procedimientos judiciales entablados como consecuencia de la supresión del enclave de San Antonio. En su opinión, es sumamente imprudente la decisión de realizar fuertes inversiones en una zona que, a pesar de estar ya integrada en el término municipal, todavía está en una situación litigiosa. De realizarse esas inversiones, y si finalmente el territorio revertiese al municipio de Sukarrieta, las cantidades invertidas se perderían.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó paralizar las posibles obras de inversión a realizar en el antiguo enclave (más allá de las de conservación y mantenimiento ordinario), hasta que se resuelvan definitivamente los recursos contencioso-administrativos que se están tramitando.

3.º.- Rotonda de San Cristóbal.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que la Diputación Foral de Bizkaia tiene entre sus previsiones la ejecución, este año, de la rotonda de San Cristóbal, para lo cual está actualizando el proyecto constructivo elaborado hace una década.



Obrak egiteko, tokiko administrazioari eskatu dio beharrezko lurzorua jartzeko bere eskura.

Errepidearen ekialdeko lursailen erabilgarritasuna ebatzita dago (Viviendas de Vizcaya S.L.-k egindako hirigintza-hitzarmen eta lagapenaren bitartez); mendebaldekoena, ordea, erabakitzeko dago. Horiek eskuratzeko, bere garaian hirigintza-hitzarmena sinatu zen A. sendiarekin, UED Zubiondoren aprobetxamendua areagotzea eta Altamiranzko bide-zatia unitateko toki-sistema gisa jasotzea oinarri.

Alabaina, Udalak ezin izan du bete hirigintza-hitzarmena, zailtasunak izan dituelako Plan Nagusiaren berrazterketa onartzeko, eta, hain zuzen, han daude jasota xedapenak.

Hala, bilerak egin dira jabetzaren ordezkariekin, ados jartzen saiatzeko. Elkarrizketetan, proposamen hauek egin dira:

- a) Baztertu 2009an sinaturiko hitzarmenaren betetzea.
 - b) Ondorioz, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusitako aprobetxamenduari eutsi.
 - c) Udala arduratuko litzateke hirigintza-aprovetxamendua berrantolatuzeko plan berezi bat izapidetzeaz eta onartzeaz, berrantolatutako unitatearen exekuzioaren ondorioz eraistea aurreikusita dagoen eraikina (San Kristobal 31), A. sendiarena, beste eraikin batekin ordeztuko dela.
 - d) A. sendiak hainbat sistema orokorrek kaltetuko duten bere lurzoru guztia lagako luke, bai biribilguneak bai Altamiranzko toki-bidearekiko konexioak okupatuak.
- Batzordeak adostu zuen, aho batez, A. sendiaren egungo baldintzak onartzea.

Para la ejecución de las obras exige que la administración local ponga a su disposición los suelos necesarios.

Estando resuelta la disponibilidad de los terrenos del lado este de la carretera (mediante el convenio urbanístico y cesión realizada por Viviendas de Vizcaya S.L.) quedan pendientes los del lado oeste. Para su obtención se firmó en su momento un convenio urbanístico con la familia A., que se basaba en el incremento del aprovechamiento de la UED Zubiondo y la incorporación del vial en dirección hacia Altamira como sistema local de la unidad.

Sin embargo, el Ayuntamiento no ha podido cumplir con el convenio urbanístico, ante las dificultades para aprobar la revisión del Plan General, en el que están recogidas las disposiciones del mismo.

En esta situación se han mantenido reuniones con los representantes de la propiedad para tratar de llegar a un acuerdo. En esas conversaciones se han planteado las siguientes propuestas:

- a) Descartar el cumplimiento del convenio suscrito en 2009.
- b) En consecuencia, mantener el aprovechamiento previsto en las vigentes Normas Subsidiarias.
- c) El Ayuntamiento se encargaría de tramitar y aprobar un plan especial para reordenar los aprovechamientos urbanísticos garantizando un edificio en sustitución del que está previsto demoler como consecuencia de la ejecución de la unidad (San Cristóbal 31), propiedad de la familia A.
- d) La familia A. cedería todo el suelo de su propiedad afectado por los sistemas generales viarios, tanto el ocupado por la glorieta como por la conexión con el viario local hacia Altamira. La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar las nuevas condiciones de la familia A.

4.- Sukarrietako Udalaren idazkia.-

Ondoren, Sukarrietako Udalak helarazitako idazkia irakurri zen, zeinetan (San Antonioko hondartzako atsedena, aisialdi- eta zerbitzu-eremu izateko berea duen 4.162m²-ko itsas eta lehorraren arteko jabari publikoko emakidaren arabera) Udala honi neurri hauek hartzeko eskaera egin dion:

“1. Kendu, zentzuzko epe batean, eta ahalik eta lasterren, San Antonioko itsas eta lehorraren arteko jabari publikoko eremuan legez kontra ezarritako kartela eta hesiak.

2. Ez egin, etorkizunean, beste inolako jarduketa materialik, baldin eta Udala honek bere alde duen indarreko jabari publikoko emakida urratuko badu; eta, zehazki, ez egin konponketarik San Antonioko hondartzako zerbitzu-erakinean, zeina emakidaren baitan dagoen (hondartzako taberna eta dagokion terraza, komun publikoak, salbamendu- eta sorospen-postua, eta ponpaketa-gela)”.

Ondokoak hartu dira kontuan:

4.º.- Escrito del Ayuntamiento de Sukarrieta.-

A continuación se dio lectura a un escrito remitido por el Ayuntamiento de Sukarrieta, en el que (basándose en la existencia de una concesión de 4.162 m² de dominio público marítimo terrestre, de la que es titular, con destino a zona de esparcimiento, recreo y servicios de la playa de San Antonio), solicita de esta corporación la adopción de las siguientes medidas:

“1º. Retire en un plazo prudencial, y a la mayor brevedad posible, el cartel y las vallas instaladas ilegítimamente en la zona de dominio público marítimo terrestre de San Antonio.

2º Se abstenga de realizar en el futuro cualquier actuación material que suponga la contravención de la concesión demanial vigente que tiene concedida a su favor este Ayuntamiento, y en particular, se abstenga de efectuar reparaciones en el edificio de servicios de la playa de San Antonio que forma parte de la concesión (bar de playa con terraza, aseos públicos, puesto de salvamento y socorrismo, y cuarto de bombeo)”.

Considerando las siguientes circunstancias:



1.- Sukarrietako Udalak aipatu emakida osorik dago Busturiko udal-barrutian, eta horixe besterik ez dio han jarritako kartelak.

2.- Emakida bat egoteak ez dakar berekin eremu hori Busturiko Udalarri dagozkion eskumenetatik salbuetsita egotea, besteak beste hondartzako erabiltzaileei jakinaraztea zein udal-barrutian dagoen hondartza.

3.- Sukarrietako Udala jabari publikoko emakida horren titularrak da eskatu zenean San Antonioko hondartza Sukarrietako udal-barrutian zegoelako. Egun, baina, hondartza eta ingurune osoak, eta emakidaren baitako lursail guztia, Busturiko udal-barrutian daude.

4.- San Antonioko enklabe osoa Busturian sartu da, Bizkaiko Batzar Nagusien 2017ko abenduaren 14ko akordioaren ondorioz.

5.- Hori dela eta, Busturiko Udalak Sukarrietako Udalak aipatu emakida hori besterentzeko eskatu zuen duela ia urtebete; egun, Sukarrietako Udalak ezingo luke emakida eskuratu, haren baitako lursailak Busturiko udal-barrutian daudelako. Hortaz, logikoa da Euskadiko Kosten Mugaketak espedientea ebaztea eta emakida Busturiko Udalaren alde besterentzea.

6.- Horrexegatik, Sukarrietako Udalak helarazitako eskaera Euskadiko Kosten Mugaketara igortzea erabaki da, Busturiko Udalaren erantzun honekin batera, hark ebatz dezan, ahalik eta azkarren, izapidetzen ari den emakida besterentzeko espedientea, eta, horrela, besterentzeko eskatuta dagoen emakidarekin lotuta Sukarrietako Udalaren eta Busturiko Udalaren artean gatazka-mota oro saihesteko.

7.- Busturiko Udalarri aurpegiratu zaizkion ekintzek ez dute ezertan kaltetzen aldameneko udalerraren emakida:

- Informazio-kartel bat egoteak ez du inola ere eragozten atsedeen-eremua nahi bezala eta doan (emakida-tituluan ezarri bezala) erabili ahal izatea.

- Argazkietan berdegunean ageri diren hesiak, hasiera batean, anbulantziarako eta desgaituentzako aparkalekuak babesteko zeuden jarrita.

- Hondartzetako Zaintza izeneko zaintza-sistema Foru Aldundiak antolatuta dago, ondokoa oinarri: hondartza bat udalerrri bakar batena da, eta hari bidaltzen zaizkio ohartarazpen guztiak; bada, zaintza izugarri zailduko litzateke hondartza bati dagozkion gertakariak bideratu beharko balira zein zerbitzuri eragiten dioten kontuan hartuta (arazoak sarreretan, hondarrean edo itsasoan Busturiko Udalaren ardura lirateke, baina emakidaren baitako jabari publikoan, Busturiko udal-barrutian, dauden zerbitzuak Sukarrietako Udalaren ardura lirateke, emakida oraindik ez delako besterendu Busturiko Udalaren alde?), erabateko nahasketa eragingo bailitzaieke ohartarazpenak bideratu behar dituzten pertsonen, zeinak ez dakiten hondartza erdian emakida administratibo bat dagoenik, oraindik Busturiko Udalaren alde besterendu gabea.

1.º.- Que la concesión a la que se refiere el Ayuntamiento de Sukarrieta se encuentra enclavada íntegramente dentro del término municipal de Busturia y eso es lo que simplemente indica el cartel colocado.

2.º.- Que la existencia de una concesión no implica que esa zona quede exenta de las atribuciones que le corresponden al Ayuntamiento de Busturia, entre ellas la de informar a los usuarios de la playa del término municipal en el que se encuentra situada.

3.º.- Que el Ayuntamiento de Sukarrieta es titular de esa concesión de dominio público porque en el momento de su solicitud la playa de San Antonio pertenecía al término municipal de Sukarrieta. En la actualidad toda la playa y el entorno, y la integridad del terreno de la concesión, se encuentran en el término municipal de Busturia.

4.º.- Todo el enclave de San Antonio se ha integrado en Busturia como consecuencia del acuerdo de las Juntas Generales de Bizkaia, de 14 de diciembre de 2017.

5.º.- Que, por ello, este Ayuntamiento de Busturia tiene solicitada desde hace casi un año la transmisión de esa concesión a que se refiere el escrito del Ayuntamiento de Sukarrieta, que sería imposible que la obtuviese en el momento presente, dado que los terrenos de la concesión están integrados en el término municipal de Busturia, y por lo tanto, lo lógico es que se resuelva el expediente por la Demarcación de Costas del País Vasco, transfiriendo la concesión al Ayuntamiento de Busturia.

6.º.- Por ello el requerimiento recibido del Ayuntamiento de Sukarrieta se ha decidido remitirlo a la Demarcación de Costas del País Vasco, junto con esta respuesta del Ayuntamiento de Busturia, instándoles a que resuelvan a la mayor brevedad posible el expediente de transmisión de la concesión que se está tramitando, a fin de evitar todo tipo de conflictos entre el Ayuntamiento de Busturia y el de Sukarrieta, en relación con la concesión cuya transmisión ha sido ya solicitada.

7.º.- Que los actos que se le reprochan al Ayuntamiento de Busturia en nada perjudican a la concesión otorgada al municipio vecino y así:

- La existencia de un cartel informativo no impide en absoluto la utilización libre y gratuita (como establece el título concesional) del área de esparcimiento.

- Las vallas que en las fotografías aparecen en la zona verde, inicialmente estaban situadas protegiendo los estacionamientos reservados correspondientes a ambulancia y minusválidos.

- El sistema de vigilancia denominado Control de Playas está organizado desde la Diputación Foral con la premisa de que una playa pertenece a un único municipio, al cual se remiten todos los avisos; ello se dificultaría si las incidencias correspondientes a una playa se tuviesen que encauzar en función de a qué servicio afecten (incidencias en los accesos, la arena o el mar corresponderían al Ayuntamiento de Busturia, pero, ¿los servicios enclavados en el dominio público de la concesión, en el



- Udal honek zerbitzu-erakinetak arazoak artatzeak ez du ezertarako kaltetzen eraikinaren irabazizko aldea, 2022ko abenduaren 14ra arte, Batzar Nagusien 2017ko abenduaren 14ko Akordioaren 3. xedapenean ezarritakoaren arabera, zeinaren kontra, jakina denez, errekurtsioa jarrita dagoen 150/2018 auzi-prozeduran, EAeko Justizia Auzitegi Nagusian, eta, beharbada, Busturiko Udalaren onurarako izan litekeen, aipatu EAEANK hala erabakiz gero, are atzeraeraginezko izaeraz ere, arestian aipatu Akordioaren 3. xedapena baliogabetuz gero.

Hori guztia aintzat hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak hauxe erabaki zuen, aho batez:

- 1.- Hemen jaso bezala erantzutea Sukarrietako Udalaren eskaerari.
- 2.- Eskaera Euskadiko Kosten Mugaketari igortzea, ahalik eta azkarren ebatz dezan, etorkizunean gatazkak sor daitezen ekiditeko, Busturiko Udalak duela ia urtebete eskatuta oraindik izapidetzen ari den emakida besterentzeko espedientea.
- 3.- Bizkaiko Foru Aldundiko Hondartzetako Zaintza zerbitzuaren ohartarazpenak artatzen jarraitzea, Euskadiko Kosten Mugaketak adierazi ezean emakidaren arabera Sukarrietako Udalarri dagokiola emakidaren baitako esparruan.
- 4.- Busturiko Udalak 2018an San Antonioko hondartzako zerbitzu-erakinean egindako mantentze- eta kontserbazio-jarduketei dagozkien gastu eta fakturen zerrendak (Busturiko Udalak ordainduak) Sukarrietako Udalarri igortzea, eraikina emakidaren baitako udal-barrutian dagoelako, Sukarrietako Udalak Busturikoari ordaindu nahi izanez gero hala egin dezan. Izan ere, Udal honen iritziz, haren ardura da instalazioak egoki mantentzea eta, logikoki, fakturak ordaintzea. Horien ordainketa ES79-2095-0043-2032002727 kontu korrontean egin daiteke, Busturiko Udalaren alde; aintzat hartu beharra dago Busturiko Udalak beti egin dituela jarduketak Bizkaiko Foru Aldundiko Hondartzetako Zaintza zerbitzuak eskatuta.

término territorial de Busturia, corresponderían al Ayuntamiento de Suarrieta, por mor de la no transferencia de la concesión todavía al Ayuntamiento de Busturia?, provocando una confusión total en las personas que deben encauzar los avisos y que desconocen los detalles de la existencia de una concesión administrativa en medio de la playa, no trasferida todavía al Ayuntamiento de Busturia.

- La atención por parte del Ayuntamiento de las incidencias correspondientes al edificio de servicios, en nada afecta a la parte lucrativa del mismo, hasta el 14 de diciembre de 2022, de conformidad con lo dispuesto en la disposición 3ª del Acuerdo de Juntas Generales de 14 de diciembre de 2017, que como se sabe está recurrido en el procedimiento contencioso nº 150/2018, ante el Tribunal Superior de Justicia País Vasco, y que eventualmente podría beneficiar al Ayuntamiento de Busturia si así lo decide el citado TSJPV, incluso retroactivamente, anulando la citada disposición 3ª del Acuerdo de Juntas Generales de 14 de diciembre de 2017.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.º.- Responder en los términos expuestos al requerimiento del Ayuntamiento de Sukarrieta.
- 2.º.- Enviar el requerimiento a la Demarcación de Costas del País Vasco, instándoles a que, para evitar posteriores conflictos, resuelvan a la mayor brevedad posible el expediente de transmisión de la concesión que se está tramitando, hace ya aproximadamente un año, a solicitud del Ayuntamiento de Busturia.
- 3.º.- Continuar atendiendo los avisos del servicio de Control de Playas de la Diputación Foral de Bizkaia, salvo que la demarcación de costas del País Vasco, entienda que de acuerdo con la concesión corresponda en su ámbito atenderlos al Ayuntamiento de Sukarrieta.
- 4.º.- Remitir al Ayuntamiento de Sukarrieta la relación de gastos y facturas abonadas por el Ayuntamiento de Busturia en 2018 en el mantenimiento y conservación del edificio de servicios de la playa de San Antonio, dado que se encuentra enclavado en el término territorial de la concesión, por si quiere proceder a su abono al Ayuntamiento de Busturia, teniendo en cuenta que, a su juicio es el Ayuntamiento de Sukarrieta, el responsable del correcto mantenimiento de las instalaciones, y lógicamente del abono de las facturas cuyo pago se puede realizar en la cuenta corriente nº ES79-2095-0043-2032002727, a favor del Ayuntamiento de Busturia; téngase en cuenta que el Ayuntamiento de Busturia ha realizado las obras siempre a requerimiento del Control de Playas de la Diputación Foral de Bizkaia.

5.- Urkitze eta Lugarri inguruan sarbideak ixteagatiko espedienteak.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion elkarte salatzaileak, alegia, Zain Dezagun Urdaibaik, ez duela inolako

5.º.- Expediente por cierre de accesos en la zona de Urkitze y Lugarri.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que la asociación denunciante, Zain Dezagun Urdaibai, no ha formulado alegación



alegaziorik aurkeztu 2019ko urtarrilaren 9an egindako akordio-proposamenaren gainean, hau da, Urkitzepe eta Lugarriko sarbideetan egindako itxiturengatik jarritako salaketa amaitutzat jotzekoan, Euskadiko Kosten Mugaketaren txostenaren arabera itxitura horiek itsasertzetik 6 metro atzera eraman direlako, Kosten Legearen 27. artikulua xedatu bezala.

Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen salaketa amaitutzat jotzea.

alguna en relación a la propuesta de acuerdo adoptada el pasado 9 de enero de 2019, sobre proceder al archivo de la denuncia presentada en relación a cierres realizados en los accesos a Urkitzepe y Lugarri, dado que, según el informe emitido por la Demarcación de Costas del País Vasco, esos cierres se han retranqueado a 6 metros de la ribera de la mar, tal y como establece el artículo 27 de la Ley de Costas.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó proceder al archivo de la denuncia.

6.- Zain Dezagun Urdaibairen idazkia Errotatxuko zubiari buruz.-

Kontuan hartuta Zain Dezagun Urdaibai elkarteak aurkezturiko idazkia, Errotatxuko zubiarekin loturiko dokumentazioa eskuratzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen helaraztea, eta, hala nahi badu, fotokopiak ateratzeko baimena ematea.

6.º.- Escrito de Zain Dezagun Urdaibai sobre puente de Errotatxu.-

Visto el escrito presentado por Zain Dezagun Urdaibai sobre acceso a la documentación relativa al puente de Errotatxu, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó facilitárselo, con derecho a obtener copias si lo estima oportuno.

7.- S. G. ahizpen idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Y. M., M. B. eta A. S. G. ahizpen eskaera onartzea, haien izenean besterentzeko, herentzia-titulu bidez, udal-hilerriko lursail baten emakida; egun, ahizpen aita M. S. E. jaunaren izenean dago.

7.º.- Escrito de las hermanas S. G.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de las hermanas Y. M., M. B. y A. S. G., para transmitir a su nombre, por título de herencia, la concesión de un terreno en el cementerio municipal que figura actualmente a nombre de su padre, M. S. E.

8.- Ekarpena Behargintzari.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen 5.006,69 € ordaintzea, 2018an udalerrri honi zegokiona, hain zuzen, Behargintzarekin sinaturiko hitzarmenaren arabera.

8.º.- Aportación a Behargintza.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó abonar la cantidad de 5.006,69 € correspondiente a este municipio por el año 2018, según convenio suscrito con Behargintza.

9.- Gernika-Lumoko Kirol Patronatuaren idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, 6.003,05 € ordaintzea Gernika-Lumoko Kirol Patronatuari, 2019an izena emanda dauden Busturian erroldaturiko abonatuei dagokiena, hain zuzen.

9.º.- Escrito del Patronato de Deportes de Gernika-Lumo.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó abonar al Patronato Municipal de Deportes de Gernika-Lumo la cantidad de 6.003,05 €, correspondiente a los abonados empadronados en Busturia que están inscritos durante el año 2019.

10.- N. G. M. ren idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ez onartzea N. G. M. kalte-ordaina jasotzeko egindako eskaera. Izan ere, haren arabera, autobusetik jaistean Axpeko geltokiko badian zegoen zulo batekin tupust egin zuelako erori zen; bada, eremu horren kontserbazioa Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

10.º.- Escrito de N. G. M.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazar la petición de indemnización realizada por N. G. M., ya que, según manifiesta, su caída se produjo al tropezar al bajarse del autobús en un agujero existente en la bahía de la parada de Axpe y la conservación de esa zona es responsabilidad de la Diputación Foral de Bizkaia.

11.- J. C. O. Z. ren erreklamazioagatik espedientea.-

11.º.- Expediente por reclamación de J. C. O. Z.-



Busturiko
Udala



Akta

Kontuan hartuta S. V. S-ren adierazpena, hainbat udal-
edukiontzik J. C. O. Z-ren ibilgailu batean eragindako kalteak
ikusi zituen lekukoa bera, Tokiko Gobernu Batzordeak aho
batez erabaki zuen onartzea aipatu kaltetuak kalte-ordaina
jasotzeko egindako erreklamazioa.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa,
eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta
nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Alkatea / El Alcalde,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Vista la manifestación causada por S. V. S., testigo presencial de
los daños producidos por varios contenedores municipales en el
vehículo de J. C. O. Z., la Junta de Gobierno Local, por
unanimitad, acordó aceptar la reclamación de indemnización
por daños realizados por el citado perjudicado.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por
terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta
que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez